

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

berrikuntza

Learning

Ikasi

CREATION

SOCIEDAD

# Latina II USE 2018

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

literature

40%

30%

60%





**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.**

**Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

Azterketa honek parte hauek ditu:

- 1. galdera: Testuaren itzulpena: 0-5 puntu.
- 2. galdera: Esaldi baten analisi sintaktikoa: 0-1 puntu.
- 3. galdera: Hiru hitzen analisi morfoloikoa: 0-1 puntu.
- 4. galdera: Lexikoa eta fonetika: 0-1 puntu.
- 5. galdera: Latin-literatura: 0-1 puntu.
- 6. galdera: Erromaren ondarearen iraupena: 0-1 puntu.

**OHARRA:** Latin-hiztegi batzuek gramatika gehigarri bat izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin, etab.). **Zilegi izango da erabiltzea**, hiztegiarekin batera, dela gehigarria hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela.

**Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.**

**No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.**

Este examen consta de las siguiente partes:

- Cuestión 1ª: Traducción del texto, que se calificará de 0 a 5 puntos.
- Cuestión 2ª: Análisis sintáctico de una frase: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 3ª: Análisis morfológico de tres palabras: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 4ª: Léxico y fonética: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 5ª: Literatura latina: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 6ª: Pervivencia del legado de Roma: de 0 a 1 punto.

**NOTA:** Algunos diccionarios de latín adjuntan un anexo gramatical (cuadros de declinaciones y verbos, etc.). **Se permitirá** su uso junto con el diccionario, ya sea que dicho anexo esté en las propias páginas de este o se trate de un cuadernillo independiente.



## A AUKERA

*Zesar nerviotarren lurraldera joan da, baina ez die borrokarako aukera eman: bestu modu batez menderatzen ditu.*

De improviso Caesar in fines Nerviorum<sup>1</sup> contendit. Priusquam hostes aut convenire aut profugere possent, ille<sup>2</sup>, magno hominum numero capto, quaesivit ab eis<sup>3</sup> ut in deditionem venirent atque obsides sibi darent. Eo negotio celeriter confecto, legiones rursus in hiberna reduxit. (Caes., Gall., VI, 3).

### Oharrak

- 1) *Nerviorum*: *Nervii*, *-orum*, 'nerviotarrak', Belgikako tribu bat, une horretan Zesarren etsaiak.
- 2) *ille*: Zesar.
- 3) *eis*: nerviotarrak, hau da, *hostes*.

### Galderak

1. Itzul ezazu testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu.
2. Egin ezazu *ille ... venirent* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta mendeko esaldiak identifikatuz. 1 puntu.
3. Egin ezazu *hieme*, *coegit* eta *confecto* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *opera*, *-ae* eta *laboro*, *-as*, *-are* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zer hitz ezagutzen dituzun latinezko *fides*, *-ei* eta *sonus*, *-i* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Latindar historiografia (Zesar, Salustio, Livio, Tazito) 1 puntu.
6. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu.
  - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Miles gloriosus* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula.
  - b) Itzul itzazu latindar esaldi hauek edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:  
*Ante meridiem (a.m.) / Post meridiem (p. m.)*  
*Panem et circenses*  
*Ab uno disce omnes*  
*Qui iure suo utitur neminem laedit*



## B AUKERA

*Romuloren ondoren, Numa izan zen Erromako bigarren erregea: lehenak gerrak egin zituen; bigarrenak, berriz, legeak eman zizkien erromatarrei eta, legeok betearazteko, erlijioa ere eman zien.*

Leges plurimas et utiles tulit Numa. Sed ut institutis<sup>1</sup> suis maiorem auctoritatem conciliaret<sup>2</sup>, simulavit se cum dea Aegeia colloquia nocturna habere eiusque monitu se omnia quae ageret facere. Bellum quidem nullum gessit, sed non minus civitati profuit<sup>3</sup> quam Romulus. (Lhomond, *Numa*).

### Oharrak

- 1) *institutis*: izena da (*institutum*, -i); 'erabakia' esan nahi du.
- 2) *conciliaret*: *concilio*, -are, -avi, -atum aditzarena; hemen, 'eman' esan nahi du.
- 3) *profuit*: *sum* aditzarena; datiboarekin erabiltzen da.

### Galderak

1. Itzul ezazu testua (hiztegia erabiliz). 5 puntu.
2. Egin ezazu *Sed ... habere* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta mendeko esaldiak identifikatuz. 1 puntu.
3. Egin ezazu *tulit*, *monitu* eta *gessit* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *multus*, -a, -um eta *strictus*, -a, -um hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zer hitz ezagutzen dituzun latinezko *flos*, -oris eta *regina*, -ae hitzekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Prosa klasikoa: Zizeron 1 puntu.
6. Erantzun bi galdera hauetako **bati bakarrik**: 1 puntu.
  - a) Zer iruditu zaizu Plautoren *Miles gloriosus* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula.
  - b) Itzul itzazu latindar esaldi hauek edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:  
*Do ut des*  
*Corruptio optimi pessima*  
*Si vis amari, ama*  
*Cessante ratione legis, cessat lex*



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### LATINA II

- 1) Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.
  - Gehienez, 5 puntu.
  - Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xede-hizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta itzulpenak erakusten duen latin-gramatikaren ezagutza.
- 2) Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Analizatu behar dira bai esaldi osoaren egitura nagusia bai esaldi horretako elementu bakoitzaren funtzioa.
- 3) Adierazitako hitzen analisi morfologikoa.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Kasuaren arabera, izen-jokoaren (generoa, numeroa eta kasua) edo aditz-jokoaren (pertsona, numeroa, denbora, modua eta boza) bereizgarriak zehaztu behar dira, betiere kontuan izanda hitzak testuinguru horretan duen balioari baino ez dagokiola galdera (adib.: zer da «hoc» aurrean dugun testuan, eta ez zer izan daitekeen «hoc» testuingurua kontuan hartu gabe).
- 4) Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Latinaren lexikoak gaztelanian edo euskaran izan duen eragina.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Hauek balioetsiko dira: kultismoen eta ondare-hitzen artean bereiztea eta hitz bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena.
- 5) Latindar literaturaren historiari buruzko galdera.
  - Gehienez, puntu 1.
  - Galderan aipatzen den literatura-generoa definitu behar du ikasleak, eta genero horren barruan sartzen diren egileei buruz dakiena azaldu (batez ere, literatura-genero horri dagozkion obrei buruz jardunez).
- 6) Ematen diren bi aukeretako bakar bat hartu behar du ikasleak:
  - a) Obra latindar baten irakurketa:
    - Gehienez, puntu 1.
    - Galderaren helburu bakarra da jakitea ikasleak eskatu zaion obra irakurri duen; horretarako behar adina datu eta xehetasun eman behar ditu ikasleak.
  - b) Egungo hizkuntza jasoan erabiltzen diren latinezko lokuzioak eta latin juridikoaren alorreko esaldien eta esaeren zerrendatik hartutako 4 item:
    - Gehienez, puntu 1.
    - Esaldien itzulpena edota iruzkin labur bat eskatzen da.

**OHARRA:** Latin-hiztegi batzuek gramatika gehigarri bat izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin etab.). Ezinbestekoa da epaimahai guztietan irizpide bakarra izatea aipatu gehigarri horien erabilerari buruz: **zilegi izango da erabiltzea**, hiztegiarekin batera, dela gehigarria hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela.